

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

187/2016 Foru Agindua, uztailaren 26koa, ez duena onartzen Gasteizko udalerrriaren eta Badaiaiko Mendilerroko Erkidegoaren arteko mugaketa espedientearekin jarraitzea

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren, Arabako lurralde historikoko toki erakunde mugak, izena, hiriburua eta ezaugarriak arautzen dituenaren, 33. artikuluan araututakoaren babesean, Gasteizko Udalak eskatu zuen Gasteizko udalerrriaren eta Badaiaiko Mendilerroko Erkidegoaren jurisdikzio mugen 22 zenbakiko lerroaren mugaketa prozedura abiaraztea eta, horretarako, mugaketa lan horietan ordezkaturiko zuen Ordezkarien Batzordea izendatu zuen. Era berean, Badaiaiko Mendilerroko Erkidegoak ere bere Ordezkarien Batzordea izendatu zuen, iragan maiatzaren 10ean erregistroan sarrera izan zuen idazki bidez.

Bigarrena. Egun horretatik aurrera, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak, gai horretan eskumena duen aldetik, hiru hilabete ditu, hala baderitzo, ez onartzeko mugaketa espedientearekin jarraitzea, ez duelako aipatutako lerroaren ibilbidean zalantzarik edo zehazgabetasunik antzematen, bi udalerrri horien arteko demioen mugaketa egin baitzen eta formalki onartua izan baitzen; beraz, beste izapidetik gabe, erabakitzen da espedientea amaitutzat jotzea eta eragindako udalei jakinaraztea.

Hirugarrena. Adierazi iragan ekainaren 23an informazio batzar bat egin zela Gasteizko udaletxean. Batzar horretara udalerrri bietako ordezkariak joan ziren, bai eta Otogoiaren eta Mendozako administrazio batzarretako ordezkariak ere. Batzar horretan, bertaratutakoei aurreratu zitzaizkien gaur, foru agindu honen bidez, berresten den erabakia.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatu titularrari dagokio, haren eskumeneko berezko gaiei dagokienez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren, Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta lege araubideari buruzkoaren, 40. artikuluan foru diputatuei esleitzen zaizkien eskurantzak erabiltzea.

Bigarrena. Horiek horrela, 4/2011 Foru Arauaren 35.3 artikuluekin eta Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuekin, Ingurumen eta Hirigintza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duenarekin, bat etorritik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak du mugaketa espedientea izapidetzeko eskumena (ALHAO, 25 zk., 2016ko martxoaren 2koa).

Hirugarrena. 4/2011 Foru Arauaren 32. eta ondorengo artikuluek zehatz-mehatz arautzen dute udal barrutien mugaketa eta 33. artikuluan zehazten da udalek dutela bere udalerrien mugaketa eta mugarritzea sustatzeko eskumena.

Laugarrena. Mugaketa prozedura aipatutako manuaren 34. eta ondorengo artikuluek arautzen dute, eta izapidetuko da mugarritu beharreko lerroetan zehaztasunik eta ziurtasunik ez badago eta udalerrien mugaketa egin gabe eta formalki onartu gabe badago.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ez onartzea Gasteizko udalerraren eta Badaiako Mendilerroko Erkidegoaren arteko mugaketa espedientearekin jarraitzea, ez baita ikusten bi udalerr horien arteko muga lerroa zehazteko eragiketa tekniko eta administratiborik egiteko beharrik, aipatutako foru arauaren 32. artikuluan zehazten denik, zeren eta Badaiako Mendilerroko Erkidegoaren eta Gasteizko udalerraren arteko jurisdikzio lerroa ez baita lausoa eta, agiri ofizialen arabera, ez baitago desadostasunik; beraz, ez dago arrazoirik bi udalerrien arteko mugaketa espedientea abiarazteko eta egungo mugaketa lerroa formalki onartuta ez dagoela esateko.

Bigarrena. Hortaz, onartzea AHI-051/16-K05 mugaketa espedientea amaitutzat ematea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du; beraz, interesdunek, ondoko errekurtsioak aurkeztu ahal izango dituzte, egoki irizten dioten beste edozein neurri hartzeaz gain:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri aurretik, berraztertzeke errekurtsioa, ebazpena eman duen organoari berari. Horretarako, hilabete izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 26a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO